



EZEZAGUNAK

DAVID LOZANO



giltza

periskopia

EZEZAGUNAK

EDEBÉ GAZTE LITERATURA SARIA

DAVID LOZANO

EZEZAGUNAK

EDEBÉ GAZTE LITERATURA SARIA



Lan honek Edebé Gazte Literatura Saria jaso zuen, kide hauek osatutako epaimahaiak hala erabakita: Xavier Brines jauna, Paula Jarrin andrea, Rosa Navarro Durán andrea, Robert Saladrigas jauna eta Care Santos andrea.

© David Lozano, 2018

© Arg. Eusk.: Giltza, 2019

Txorierrri etorbidea, 46

48150 Sondika (Bizkaia)

www.edebe.com

Bezeroen arreta: 902 44 44 41

kontaktatu@edebe.net

Argitalpenen zuzendaria: Reina Duarte

Gazte Literaturako editorea: Elena Valencia

Itzultzailea: Miren Ibarluzea Santisteban

Bildumaren diseinua: Book & Look

Azaleko argazkia: Shutterstock

Egilearen argazkia: Fernando Sánchez

1. argitalpena, 2019ko otsaila

ISBN: 978-84-8378-507-2

Lege-gordailua: B. 1274-2019

Espanian inprimatua

Printed in Spain

EGS – Rosario, 2 – Bartzelona

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos) (www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 45).

Aitari, azken hegaldia hasi duen pilotu bikainari.

«Plazaren erdian bada norbait buelta hartu
eta begiak jaso dituena
nire leihoan bilatuz argia,
gaueko itsasargia eta bere mamuak».

Irakurlea, Luis García Montero

*Bartzelonako Sants tren-geltokiko
McDonald's. Ekainaren 30a, 20:20*

«Ezezagunak», pentsatu du Larak mugikorreko pantailan bere buruaren islari begiratzen diola. «Bi ezezagun gara».

Bi ezezagun dira, eta, halere, gaur gauean elkartzea erabaki dute, non eta Sants geltokiko McDonald'sen. Ez da batere toki erakargarria.

Ezlekua da, inor ez delako geltokietan geratzen. Geltokiak bidegurutzeak dira. Horixe azaldu dio Wildek ordu batzuk lehenago, elkartzeko tokia proposatu dionean. «Goizaldean husten diren espazioak», idatzi du mutilak, eta, gero, eten-puntuak jarri ditu mezuan.

Ezin zaio uko egin halako gonbidapen bati.

Mutilaren magnetismoak, mutilaren misterioak, gero eta harrapatuago sentiarazten du Lara. «Azkarra da, badaki ez nuela onartuko hain publikoa ez den toki batean geratzea nik bera ezagutu gabe».

Neskak aitortu egin behar du, gainera, mundu guztia ez dela gai McDonald's batean jarritako hitzordua kontu erromantiko gisa saltzeko, nahiz honek badiuen halako kafetegi ukitu bat. Bai, Wilde azkarra da.

Larak bere buruari galdetu dio zer posibilitate dauden hain mutil interesgarria, hain jantzia, hain burutsua... mutil katxarroa izateko eta gaya ez izateko.

—Posibilitateren bat bai, aproba egiteko beste bai, behintzat.

Ozen esan du hori, bakarrik dagoela. Zorionez, ez dirudi inguruko inor konturatu denik.

«Honelako lekuen arazoa da», kexatu da Lara bere barrurako, «pertsonek ikusezin bihurtzen dituztela. Are gehiago geltokietan, noski, mundu guztia dabil-lako bere mailete begira, ez pertsonen begira». Hala ere, Larak jendea begira duela sentitzen du; bere begirada beste gazte batzuenarekin gurutzatzen da, baina inork ere ez du egiten ezagutzeko keinurik. Wilde ote da horietakoren bat? Hainbeste jatorri, adin eta itxuratako ezezagunen artean, ezinezkoa da arreta erakartzea, eta neska ez da gai sentitzen hainbeste mezu eta txat-ordutan kide birtualaz egindako ideiarekin bat datorren profilik begiztatzeko.

Eta mutila hortxe badago, zelatan? Anonimatuari esker ondo-ondoan eduki dezake, eta Lara konturatu ere ez. Wildek abantaila du hitzordu itsu honetan, badaki-eta nolakoa den neska: Twitterren ikusi ditu neskaren argazkiak eta identifikatzeko modua du. Wildek sarean darabilen profilean, oster, mendialdeko paisaia bat baino ez da ageri, eta ez du egundo bere argazkirik argitaratu. Horregatik, Larak ez dauka goizaldero izan dituzten elkarriketa luzeen gomuta baino, mutilaren irudia, aurpegiera, eskuak... imaji-

natzeko. Agian, gomuta hori ez da oso material fida-
garria mutilak diseinatzeko.

Ez, ez da.

Neska urduri-urduri dago, eserlekuan egon ezinik,
eta ordua begiratu du mugikorrean: bost minutu falta
dira zortzi eta erdietarako; alegia, topaketaren ordu-
rako.

Ekainaren 30ean, ostiralarekin, zortzi eta erdietan.

Gurasoek inola ere baimenduko ez zuten hitzor-
duaren berri, Bertak baino ez du, bera baita Lararen
lagunik onena eta hainbat abenturatako kidea. Izan
ere, ituna egin dute Larak eta Bertak: Larak dei gal-
du bat egin behar dio bederatzietan, dena ondo doala
berresteko.

Minutuak aurrera doaz. Gutxi falta da. Une horre-
tantxe, Sekulako Zalantza sortu zaio: ospa egin be-
harko luke berandu baino lehen? Ideia ona izan da
pauso hau ematea, kontuan izanik bi hilabetearen sare-
ren bidez baino ez dutela hitz egin? Ez al zuen berme-
ren bat eskatu behar aurrerapauso hau eman aurretik?

Erraz jotzen du Lararen gogoak dramara, eta Wil-
deren abatar izugarriak bururatzen zaizkio: ezpainak
milikatu bitartean atzamar artritikoak luzatzen di-
tuen pederasta zaharra, nerabeak zatikatzeko aiztoa
zorrozten ari den psikopata, erritu satanikoetan sa-
krifizioan emateko haragi freskoaren bila dabilen sek-
taren bateko liderra, bortxatzaile konpulsiboa (oso
kompulsiboa)...

Edo herabe patologiko horietako bat, aurrez aurre-
ko topaketaren orduan hitz bakar bat ahoskatzeko gai
ez den horietako bat.

Aukera horiek guztiak hobeak iruditzen zaizkio pentsatu ere egin nahi ez duen azken aukeraren aldean: eta bere mutil-lagun ohia agertzen bada? Berta kenduta, Larak ez dio gaueko plana inori kontatu, baina baliteke Jordi jakinaren gainean egotea; batez ere, azken egunotan neskak argitaratu dituen txio batzuek bidea ematen dutelako Wilderekin duen lotura susmatzeko. Damututa dago ez duelako oso zentzudun jokatu.

Bai, baliteke Jordik gaurkoaren berri izatea. Hiru hilabete dira moztu dutela, eta mutila gaizki dago; hain gaizki ezen bere buruaz beste egiteko mehatxua ere egin dion Larari, beste batekin ateratzen hasten bada. Ahoberokeria ote? Ezin jakin. Badaezpada, jasaten ari den jazarpena salatu du Larak polizia-etxean. Edonola ere, neskarentzat arrisku zuzenik ez dagoela eta, ez du lortu besterik abisua erregistraturik geratzea baino. Egia esan, ezin liteke beste askorik egin. Urruntze-agindu batek biktima jazarpenetik babes dezake, baina ez du galarazten suizidak bere bizia etetea.

Lara nekatuta dago horretaz. Haustura hori gainditu nahi du, Jordigandik betiko urrundu. Horrexegatik heldu dio hainbesteko indarrez Wilderen agerpen askatzaileari.

Ez da damutzen mutil-lagun ohiarekin moztu izanaz; alderantziz: harreman hori historia da dagoeneko, eta ez dago prest galtzaile-xantaiari men egiteko. Hain zuzen, bere buruari zilegi zaion askatasuna frogatzeko dago han, beste mutil batekin hitzordua jarrita, berriro hasteko prest, orrialdea pasatzeko prest.

«Ez», lasaitzeko saiakera egin du. «Ezinezkoa da Jordi agertzea. Ez daki non eta noiz geratu garen, eta, gainera, ez da Santsetik gertu bizi». Hitzordu itsu honetarako imajinatu dituen gainerako hautagaiak agertzea, ordea, ez da hain ezinezkoa...

Bere lagun Berta gai izango litzateke mehatxu horiei guztiei aurre egiteko, baita Jordiri ere. Indartsua da, autoritarioa, eta oldarkorra ere bai, egoerak hala eskatuz gero. Nahiago harekin balego!

Ziurgabetasunaz gogaituta, Lara korrika hastear da. Tentatuta dago kristalean zehar ikusten dituen irudi horien guztien artean nahasteko, ekipajea eskuan geltokiko atarirantz doazen AVEko bidaiarien itxura duten silueten artean nahasteko. Bulkadari eusten ahalegindu da, lasaitasuna berreskuratzeko indarrak egin ditu. «Ez geratu lotsagarri», agindu dio bere buruari. «Ez egin ihes. Imajinatu dituzun profil arriskutsu horietako batek ere ez luke hitzordua hemen jarriko».

Edo hori pentsatu nahi du, behintzat.

Bi minutu. Segundo batzuen buruan ez du topaketa saihesteko aukerarik izango. Altxatu eta desagertu, edo...

Lara geldi dago. Ezinezkoa da. Arriskua egonik ere, ez du ihes egingo noizbait Wilderen ahotsa entzun gabe, Wilderen betiereko begiradari aurrez aurre eutsi gabe.

«Betiereko begirada».

Ameskeria erromantikoan erori da berriz ere Lara. Nolatan hautatu du adjektibo hori hain inguru narra-sean?

Hanburgesak soilik dira betierekoak McDonald'setan, konposizio kimikoari esker, baina hobe da horretan ez pentsatzea.

Atzerako kontaktak aurrera jarraitzen du, eta gero eta jende gehiago dabil joan-etorrian Lararen mahaiaren inguruan.

Horietako edozein izan daiteke Wilde.

Geltokian pauso sendoak emanaz sartzen imajinatu du Larak, eskuan dakarrela elkar ezagutzeko adostutako liburua: *Emakume ezezagun baten gutuna*, gehien gustatzen zaizkion istorioetako bat.

Minutu bat.

Wildek agertzeaz egon behar du.

«Zoaz orain, oraindik garaiz zabilta», xuxurlatu dio barruko ahotsak gero eta apalago, mutilaren irudi ideala neskaren gogoan mamituz doala.

Larak, ordea, atzean utzi du dagoeneko atzera bueltarik ez duen puntua. Neskarentzat, une honetako mehatxurik okerrenea mutila hitzordura ez agertzea da.

Zain geratuko da.

Ezagutu egin behar du, behingoz, goizaldeetako lagun misteriotsua.

Lehenengo kapitulua

Santseko McDonald's. Ekainaren 30a, 20:31

Wildek *Emakume ezezagun baten gutunaren* alea ezkutuan ekarri du, neskaren mahairantz datorrela. Horregatik, Larak ez dio ia arretarik jarri atetik sartu eta hurbildu zaionean. Neska arduratuta dago itxura susmagarria dutenen bila, eta ez die erreparatu halako baldintzarik betetzen ez dutenei. Wildek, jomugaren aurrean metro batera dagoela, begiradak gurutzatu dituztela aprobetxatu du neskari irribarre distiratsu bat eta liburua erakusteko.

—Aupa.

Hasieran, Larak zalantza egin du eta begiak iltzatu ditu mutilak nortasun-txartel gisa dakarren liburuan. Kostatu egin zaio erreakzionatzea. Une hori asko presatu du, behin eta berriz entseatu du buruz, baina, hala eta guztiz, mutilak ezustean harrapatu du. Gorroto du lehenengo unean itxura txarra ematea, baina berandu da konpontzen ahalegintzeko. Afarian itxura hobea ematea espero du.

—Wilde? —galdetu dio, hitzak ahoskatzea lortu duenean. Berehala damutu da galderaz eta aurpegitik kendu ezin duen barre ergelaz.

Mutilak, osterak, ez du barrerik egin. Buruaz baietz adierazi, eta hutsik dagoen aulkia seinalatu du.

—Eser naiteke ala desengainua hartu duzu eta nahiago duzu nik alde egitea?

Azentu katalan markatua du.

—Ez, ez! Barkatu. Ezusteagatik-edo izan da...
Nik...

Agurtzeko bi musu ere ez. Hasiara tamalgarria, zinez.

Halako batean, Larari dutxatu berri usain atsegina iritsi zaio harengandik, identifikatu ezin duen kolonia ezagun batekin nahasirik. Wilde eseri bitartean, Larak haren hazpegiak aztertu ditu: ez da bereziki galanta, baina erakargarria da. Badu zerbait. Bat eta laurogei ingurukoa izango da, eta argal samar dago. Azal zuria du, eta begi handi beltz-beltzak. Begi horiek gauza guztiak xehe-xehe aztertzeko diseinatuak dirudite. Ile iluna du, motz-motza, eta bekain sarri-sarriak. Masailetan bizarraren itzala du, baina oraindik ez zaio hazten ondo geratzeko bezain sendo. Bertak «sasi-bizarra» esango lioke. Larak aztertzen jarraitu du: ezpain finak ditu, eta sudur zorrotz-zorrotza. Begitar-te kementsua du, baina irribarrearekin leuntzen du. Horixe da, zalantzarik gabe, mutilaren armarik onena.

Ondo darabil arma hori.

Larak oraindik astia du begirada jaisteko eta ikuskatze diskretua amaitzeko: mahaiak estali arren, sorbalda estuak ikusita, suma daiteke gorpuzkera ez duela oso atletikoa. Alkandora koadroduna darama, bakeroak —eseri aurretik ikusi dizkio—, eta zapatila beltzak.

Orokorrean, liluragarria ez bada ere, erakargarria iruditu zaio. Larak pentsatu du Wildek gaintitu egin duela lehenbiziko proba. Dena dela, askoz ere zorrotzagoa izango da gainerako guztiarekin. Azken finean, mutila bera izan da itxaropen handiak sortu dizkiona, gauero hainbeste konfidentzia egin ostean. Orain, aurrez aurre, egiaztatu egin beharko da maila berean dagoen... eta ea neska ere Wildek espero duena den. Gaua hasi baino ez da egin.

—Azkenean, ezagutu dugu elkar... —esan dio mutilak neskari begietara begira.

Soseguz hitz egiten du. Ez dirudi urduri dagoenik.

—Azkenean, *ikusi* dugu elkar —zuzendu dio Larak—. Nik, oraindik, ez dakit ezer zuri buruz. Zure benetako izena ere ez dakit.

Wilderi irri bat atera zaio.

—Arrazoi duzu. Joko honetan zeuk arriskatu duzu nik baino gehiago. Eskerrik asko.

Larak gustuko du Wilderen ahotsa, baxua eta leuna, besarkadek bezala inguratzen zaituzten horietakoa. Mutilak ondo emango luke irratirako. Neskak bere buruari galdetu dio nola emango ote duen belarrira halako ahotsak esandako «Maite zaitut» batek, baina berehala saiatu da pentsamendua burutik aldentzen. Zergatik ote da hain sentimental?

—Nabaritzen da zeuk jarri zenituela arauak —gogorarazi dio.

—Neurea izan zen ekimena, ezta?

—Erraza da lehen pausoa modu anonimoan ematea.

Wilde tente jarri da eserlekuan. Ez zuen kexarik espero aurrez aurreko lehenbiziko topaketan.

—Hitzordua ondo iruditzen ez bazitzaizun, zergatik onartu zenuen?

—Jakin-minagatik; baina ez zaitez nahastu: neska otzan baten bila bazabiltza, hobe duzu alde egitea. Denbora aurreztuko dugu biok.

Larak nahiago du hasieran zakar-itxurak egin, hala nerbioak ostendu ditzakeelako. Gainera, ez dago prest erakarpen fisiko hutsak eraman dezan. Joko horretan hain aurrera eraman duenak asmo handiagokoa izan behar du. Askoz orekatuagoa bientzat.

—Ez zait inoiz iruditu neska otzana zarenik, eta, gainera, hori ez zait batere interesatzen —esan du Wildek—. Zin dagizut.

—Pozten nau hori jakiteak. Barkatu, baina horrela ez da gaizki-ulerturik egongo.

—Ados nago. Orduan, zer?

—Ez dakit ba, agian niri dagokit erritmoa markatzea.

Mutilak tentuz begiratzen dio. Ez zuen uste kontrola hain azkar galduko zuenik.

—Zer esan nahi duzu?

—Iritsi dela unea zuk pauso gehiago emateko. Zure txanda da.

Mutilari dagokio bere burua erakusten jarraitzea, eta horretan hasita dago hitzordura agertuta. Baina Lara ez da horrekin soilik konformatuko.

—Bidezkoa iruditzen zait —Wilde jaiki egin da, neskarengana makurtu eta, oraingoan bai, bi musu eman dizkio masailetan—. Gerard dut izena. Urte askotarako.

—Jakin dut katalana zarela —Larak irribarre egin

du, nahiz eta musuek urduritu egin duten—. Zure txioengatik.

—Baina asko gaztelaniaz idazten ditut eta.

—Ehuneko berrogeita hamar, gutxi gorabehera.

—Kalkulatu egin duzu?

Larak sorbaldak jaso ditu.

—Zuri buruz lor nezakeen informazio bakarra zen; beraz, errepasatu egin dut Twitterren kontua zabaldu zenuenetik argitaratu duzun guztia. Ez zara oso aktiboa. Agian horregatik duzu hain jarraitzaile gutxi.

—Ez da erraza zer esan edukitzea eta berrehun eta lau rogei karakteretan esaten jakitea.

—Zuretzat ez, behintzat. Gure elkarrizketen ostean argi geratu zait mila hitz baino gehiago behar dituzula agurtzen hasteko. Askok gustatzen zait hori zugandik —gehitu du, gaizki-ulerturik egon ez dadin.

—Beste pertsona interesatzen bazait bakarrik luzatzen naiz.

Begirada sarkorra, laztantzen duen ahots sakona. Larak aitortu egin behar du Gerardek loreak botatzeko modu eraginkorra duela, baina bera ez dago gauzak erraz jartzeko prest.

—Beraz, nola deitu behar dizut? Gerard ala Wilde?

Lara eginahalean ari da hotz, ia kalkulatazailer, agertzeko. Bera ez da halakoa, askoz ere kartsuagoa eta ameslariagoa baita, baina bere buruari agindu dio —Bertak behartuta— kontuz ibiltzeko.

—Deitu Wilde —erantzun du mutilak—. Halaxe ezagutu genuen elkar, ezta? Manten dezagun, ba, misterioa.

Mugikorra atera du poltsikotik, iPhone 7 bat, soinua kendu eta alde batera utzi du, bere asmoa aitortuz bezala.

—Ados —Larak baiezko keinua egin, eta berak ere mugikorra mahai gainean utzi du, soinua kenduta. Mutilaren interesa neurtzeko, kontuan izango du hark zenbat aldiz begiratzen dion mugikorraren pantailari—. Bartzelonakoa zara? Hori galdetu dizudanetan, ez didazu erantzun. Zuk badakizu ni hemen bizi naizela, baina Zaragozako naizela.

Wilde oso zuhur ibili da beti bere datu pertsonalekin.

—Ez, Tarragonakoa naiz. Valls ingurukoa —gehitu du, bat-batean.

Lara harritu egin da mutila datu gehiago emateko prest ikusita, ohituta baitago mutilaren hermetikotasunera, elkarrizketa ez bada zaletasunei, gustuei edo ametsei buruzkoa. Seguruenik ulertu du neskaren kexa. Neskarentzat eskertzekoa da, baina argi du oraingoz probaren lehenbiziko faseari eutsi behar diola. Larak galdeketa-tonua berreskuratu du:

—Ez dirudizu batere urduri. Neska askorekin geratzen zara plan honetan?

Wildek asko zabaldu ditu begiak.

—Lehenengo aldia da.

Mutilak mindua dirudi. Larak berriz eutsi behar izan dio jarrera hotz horretatik ihes egiteko gogoari, halako harrera egiteagatik barkamena eskatzeko gogoari. Minuturik minutura, gero eta toki handiagoa hartzen dute neskaren barruan sarearen bidez sortutako sentimenduek. Bai, maitemindu daiteke mutil horretaz. Aurrez aurreko topaketak berretsi baino ez

du egin mutilarekiko sentitzen hasia dena..., nahiz eta bestelako itxura batekoa imajinatzen izan duen.

Inondik ere, oso gutxi kostatu zaio errealitatea onartzea.

—Izan ere, hain seguru ikusten zaitut, hain lasai...

Wildek hasperen egin du.

—*Itxurakeria* hutsa, Lara. Ez al zara konturatzen? Eginahalean ari naiz zu inpresionatzeko. Hori da dena. Ezagutzen nauzu, hitz egin dugun guztia hitz eginda...

—Ez, ez zaitut ezagutzen.

Larak ez dio bakerik ematen.

—Ba, zerbait jakin dezazun nahi dut: barrutik... beldurtuta nago.

—Beldurtuta? —orain neska harritu da—. Nigatik?

Wildek ezpainak busti ditu, totalka hasi da, eta Larak lehenbizikoz ikusi du hitz bakoitza neurtzen duen mutil baten aurpegiera, ematen duen bezain segurua ez den mutil batena.

—Dena kakazteko beldur naiz —onartu du—. Zuk alde egin eta berriz ere elkar ez ikusteko edo elkarrekin ez hitz egiteko beldur.

Larak arnasa hartu du.

—Neuk ere gauza bera sentitzen dut, Gerard.

Gerard esan dio. Akatsa.

Isilik geratu dira biak. Ez da erraza baldintza horietan bihotza irekitzea eta berriketan aritzea, batez ere kontatuta dauzkatelako hainbat gauza euren logetako babespean. Orain aurrez aurre hitz egitea erronka handia da.

—Ai, bertatik bertara hitz egitea... —dio Larak—. Dena bat-batekoa...

—Eta etxean jokatu gabe —Wildek inguruko mahaiak seinalatu ditu—. Mugikorreko pantailaren teklak sakatu bitartean pentsatzeko izaten dugun denbora hori ere... ez daukagu. Baina ez gara hain gaizki ari, ezta?

—Nire ustez, zu ni baino hobeto ari zara.

—Ezta pentsatu ere.

Larak ezezko keinua egin dio:

—Ez duzu zertan gezurrik esan: badakit nire puntu ahulak zein diren.

Bere buruari galdetu dio ez ote den zakarregia izan. Oraingoan ez da izan hori bere asmoa.

—Tira, beti edukiko dugu WhatsApp-*ez aritzeko aukera...* —ez dirudi Wilde haserretu denik. Irri egin du—. Batzuk ibiltzen dira, ba, elkarri mezuak bidaltzen, mahai berean daudela.

—Horretarako ere, gai ikusten dut neure burua, ez esan bi aldiz... —Larak maitekiro ukitu dio besoa. Lehenbiziko gerturatzea izan da. Mutilak hala sentitu du—. Lehenengoz geratzeko adorea izan badugu, seguru bizirik aterako garela egiazko solasaldi honetatik.

—Ados nago, bai.

Isilik geratu dira berriz.

—Ez nuen espero hain gogor hasterik —zintzotasunaren estrategiarekin egin du proba Wildek—. Baina gustatzen zait, ez zara lotsatzen eta zuzen-zuzena zara.

—Ba, egia esan, ni ez naiz halakoa —neskak buruari eragin dio—. Gaur *itxurakerien* gaua da, antza.

Barre egin dute biek. Apurka-apurka lasaitzen ari da bien arteko giroa.

—Eskatuko dugu zerbait afaltzeko eta, bide batez, denbora emateko? —proposatu du Larak—. Seguru horrela gai xaloagoak bururatzen zaizkigula.

—Ideia bikaina! Neure kontu —Wilde jaiki egin da—. Zer hartu nahi duzu?

Larak pentsatu du gonbidatzen uztea. Merezi du, Wilderen aldeko apustu itsua egiteagatik. Mutilak esan duen moduan, neskak arriskatu du gehien hitzordura agertuta.

—Oilasko McMenu bat, patata frijituekin, eta Coca-Cola bat.

—Tamaina?

—Normala, eskerrik asko.

Wilde kutxetako ilaretara bidean urrundu da. Orduan, Larak, erromantizismorako joera alde batera utzita, mutilaren azterketa fisikoa bukatzea erabaki du: ongi dauzka galtzak, estu-estuak dira eta hanka politak egiten dizkiote.

—Ipurdi ederra —gehitu du, xuxurlaka—. Berta harro legoke nitaz.

Ez dago gaizki, ez. Wilde ez dago batere gaizki.

Larak zer ordu den begiratu du mugikorrean. Laguna ere mugikorrari begira egongo da, badaezpada, erreskatean joan behar badu edo.

—Ez da horren beharrik egongo —murmurikatu du Larak Bertaren zenbakia sakatu bitartean—. Oraingoz, aurrera doa hitzordua.

Linearen bestaldean deiaren tonua entzutean eskegi du. Horrek lasai utziko du laguna: diskoteka

ezagun batera joateko geratuta dago. «Ea nik bezain ondo pasatzen duzun zeuk ere, Berta», pentsatu du. Jarraian, sarreran iltzatu du begirada. Ezin du Jordiren mehatxua burutik kendu. Eta dena delakoagatik topaketaren berri jakin badu eta han agertzen bada? Agian asteak daramatza kontrolatzen... edo jarraitzen... Bere pentsamenduetan murgilduta, ez da konaturatu Wilde jatekoaren azpilarekin itzuli dela.

—Lara?

Neskak buelta eman du hainbeste txunditzen duen ahots hori aditu duenean.

—Barkatu, distrahituta nengoen.

Wilde eseri egin da, eta azpilean dakarrena banatu du.

—Sarrerara begira ari zara iritsi naizenetik. Zer da, ba?

Igarri egin dio. Larak nahiago luke hobeto disimulatuko balu.

—Gogoan duzu nire mutil-lagun ohiaz hitz egin nizula?

—Bai, Jordi delako hori. Hemeretzi urte. Garaia. Tailer batean egiten du lan. Molestatzen dabilkizu? —tonua gogortu du Wildek—. Ze hemendik agertzen bada zu gogaitzera...

—Lasai, seguruenik neu nabil paranoiko samar... Orain arte ez da horren urruti iritsi.

Baina neska larritu egin da, eta pentsatu du bera ere ez dela hain urruti iritsi mutil batekin, harremana moztu zutenetik.

—Orduan?

—Deitzen eta mezuak bidaltzen jarraitzen du, besterik ez. Gertatzen dena da —ezin du halako gauza bat ezkutatzen jarraitu— duela gutxi esan zidala bes-

te batekin hasten banaiz... bere buruaz beste egingo duela. Horixe izan da azken estrategia: xantaia emozionala. Ez nizun kontatu nahi izan honetaz hitz egin genuenean. Ez nintzen ausartu.

Wilde zurrut egiteko egon da, baina edalontzia mahai gainean utzi du.

—Baina ez zen benetan ariko, ezta?

Larak segundo batzuk hartu ditu erantzuna pentsatzeko.

—Gai da hori egiteko.

Baliteke egin izana. Larak beretzat gorde du, baina badira bi egun ez duela mutil-lagun ohiaren mezurik jaso. Kasualitatea ote? Eta sarean zelatan ibili bazaio eta Wilderekin izandako elkarrizketen eta hitzordua-
ren berri izan badu? Neskaren azken txioak interpretatzea ere bazuen, zeren neskak bere bizitzan berriak zeudela iradokitzen baitzuen. Larak ez daki Jordiren berririk ez izateak lasaitu ala larritu egin behar duen.

—Tipo horrek egiten duena ez da zure erantzukizuna, Lara.

—Baina pentsa...

Wildek pentsamenduak igarri dizkio:

—Ba ez litzateke zure errua izango —tematu da—. Hori da berak pentsarazi nahi dizuna, besterik ez. Ez utzi hori gerta dadin, tipo horrek ez du dagoeneko zerikusirik zure bizitzarekin.

Larak arrazoiketa hori ulertzen du. Azken egunotan behin eta berriz errepikatu dio bere buruari, baina denbora gutxi igaro da utzi zutenetik. Jordi buruan du oraindik, eta ezingo luke jasan pentsatzea bere buruaz beste eginarazi diola.

—Horixe bera da sentiarazi nahi dizuna —Wildek zehatz-mehatz irakurtzen dizkio begiak—. Ez eman jokorik.